

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA:

Bezeroak dira gure negozioaren bihotza. Gure bezeroak inguruko hiritarrak izango dira, zehazki, kirolariak eta ingurugiroaz kezkatu eta neurri jasangarriak hartzearen alde daudenak. Bezeroak beraien beharizanen, ezaugarri komunen eta mailaren arabera taldekatuko ditugu, bakoitza eroso sentitzeko.

Gure kasuan, aurreikusi dezakegu bezero horiek kirolarekiko interesa eta ingurumena zaintzeko gura duten Donostia hiriarekin nolana hiko lotura dutenak direla, eta hori horrela delarik, gehienbat ezaugarri horiek betetzen dituen edonori egongo da gimnasioa bideratua. Kontsumitzaile horien gehiengoa gazte jendea izango da, 16 eta 30 urte bitarteko kirolzaleak. Hala ere, eskaintzen ditugun jardueren aniztasunaren ondorioz, adin guztietako jendeak izango du gure gimnasia etortzeko aukera.